


Noaia !!

www.noaia.com



Errenta Aitorpena
euskaraz, zergatik ez?



*Sindikatuak, 100 urtez,
baserritarren premiak asetzen*



FUNERARIA GONZALEZ

Tel: 943.36.21.63
608.16.77.92 eta 660.38.86.52



USURBILGO EHORZTETXEA

Zerbitzu azkarra eta etengabea 24H.
Belatoki guztietan zerbitzuak.
Lekualdaketak, hilarriak, eskelak...
Ospitale zentru eta egoitzetan ere.
Seguru konpainia guztiak

Muna lurra Kalea 8

www.noaua.com
usurbildarron zerbitzura



Urtinea Lorategia



Iritsi da Udaberria

- ✓ Garaiko landareak zure lorategi eta balkoitarako
- ✓ Era guztietako aukerak **AMAREN EGUNEAN** opariak egiteko



San Esteban auzoa

☎ 943.362.255 Faxa: 943.366.054
E-mail: urtinea@euskalnet.net

Albiste iruditan !!

Aurten, Uda Jolasik ez?

Hilabete batzuk falta dira oraindik, baina udan arazo baten aurrean egon daitezke guraso asko. Aurten ez baita Uda Jolas txokoa antolatuko. Orain arte, ludoteka funtzioa egin du Uda Jolasek. Arrakasta handiarekin, gainera. 2006an, esate baterako, 75 haur bildu zituen. Baina begiraleak beste lan batzuetan daude eta ez dute uda honetakoa prestatzeko aukera izango. Beraz, beste begirale gazte batzuk ez badute antolatzen, haur asko kale gorrian ikusiko dira. Eta guraso asko, beraz, arazo baten aurrean. Bereziki, kaxkoan bizi direnak. Izan ere, Zubietan eta Aginagan ere ludotekak antolatzen dira baina ez dira Uda Jolasen ekimenak.



75 HAUR BILDU ZIREN 2006KO UDA JOLASEN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhua Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhua Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

ANTZERKI TALDEA, ANTZEZLE BILA _____ **7. OR.**

ALKARTASUNAK 100 URTE BETE DITU _____ **10. OR.**

ERRENTA AITORPENA EGITEKO ORDUA _____ **12. OR.**

ESKUBALOI TALDEA, KANTABRIARA _____ **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozategia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

LATAILLADE

ITURGINTZA

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea - 943 363 348 - 609 888 021



AITOR LANDALUZE

Non gorde behar duzue ilusioa?

Benetan bitxia! Gau hezearen erdian etxera noalarik Potxoenetik plazara sartzean aingeru batek ikusi nau eta ziztu bizian argi zuri eder baten erdian hegan desagertu da. Demarrian ordea, beste aingeru bat (hau erabat kiskalita) geratu da eserita. Honek ez du hegan egiterik izan, saiakerarik ere ez du egin. Poliki hurbildu naiz. Buru makur topatu dut. Aurpegi kaxkarra zuen; begi ubeldu erabat itxiak, aurpegi argitsuak izan behar zuena kolpez koloreztatua, gorritik beltzerako gama osoa erakutsiz. Beso baten igeltsua jarririk eta hankak belaunetan bukatzen zitzaizkion. Mantala modura hego lumagabe pareta izterren gainean zituen. Penagarria. Zeozer behar ore zuen galdetu diot ba, eta hizketan hasi zait.

- Ehun urtez Goi-mailako Aingeruen eskolan prestakuntza sakona jaso ondoren praktikak egitera etorri nintzen, munduan pertsonen artean zorientasun eta ontasunaren argia zabaltzera. Gogo handiz etorri nintzen, urte asko dira inork ez duela praktikak gaintzea lortu eta irakasle guztiek nigan konfiantza handia jarria zuten... Baina, ez nuen uste horren gogorra izango zenik.

Oso poliki mintzatzen da, erabat nekatua, pentsatzeko eta ahoskatzeko denbora tarte luzeak hartuz...

- Oraintxe izutu duzun aingeru hau praktiketako tutorea zen eta asma dezakezunez nik ere ez ditut praktikak gaintitu.

Ondorioz, ez ditut betirako hegoak eskuratzerik izan.

Ni oso profesional, zenbat deialdi konbokatoria edo delako gehiago dituen galdetu diot baina ez dit entzun eta berearekin jarraitu du...

- Ez dut ezer lortu; aurrena gezurrak gortu ninduen, faltsu-keriak besoak hautsi eta gorrotoak begiak ubeldu eta itsutu. Ondoren gerrak hankak moztu zizkidan, haurren noraezak zorabiatu eta askatasun ezak praktiketarako hegoak erauzi. Azkenik bakardadeak kiskaldu eta maitasun ezak bihotz eta barrunbeak txikitu. Eta orain hemen nago, praktikak suspendituta, harri honen gainean estatua bihurtzea desiratzen, ea hau bezalako eliza dotore batean lekutxoren bat egingo ote didaten esperantzarekin...

Orduan nire lagun pelukera, trebea benetan, aipatu diot. Seguru bere luma horiek ederto txukuntzen dizkiola esaten hasi naiz, baina berriro ere ez dit entzuten eta erabat etsiturik...

- Non gorde behar duzue ilusioa?, galdetu dit.

Zer erantzun ez dut izan, muxu bat ematea besterik ez zait okurritu eta instantean harrizkoa bihurtu da.

Eguerdian plazara jaitsi naizenean ez dut ikusi, ezta eliza barruan ere. Baina txoritxo batek, goizean ijito batzuk etorri eta txatarretako edo eraman dutela esan dit.

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Joxe Piñas - Unai Agirre

Ika-mika !!

Euskal Herriak askatasuna behar du, ostiralean denok kalera!

Astehenean hasi zen Espainiak Auzitegi Nazionalak Madrilgo Casa del Campon duen aretoan amnistiaren aldeko mugimenduaren aurkako epaiketa. Euskal independentismoa epaitu eta zigortzeko helburuz, abian jarri den beste epaiketa politiko bat hain zuzen, auzipetuen ahotan entzun dugun bezalaxe, beste epaiketa fartsa bat. Izan ere, sumario honek hasi-hasieratik helburu politiko jakinei erantzun die. Estatuak baldintzatu eta neutralizatu egin nahi du amnistiaren aldeko mugimenduak 30 urte hauetan zehar egin duen lan paregabea: batetik, zigortu egin nahi dute urte hauetan guztietan Estatuaren indarkeria salatzen duen mugimendua eta herri honek jasaten duen eskubide zibil eta politikoen urraketa etengabea salatzen egiten den lana; eta, bestetik, zigortu egin nahi dute euskal preso, iheslari eta errepresaliatu politiko nahiz horien senitartekoekiko bizi-rik eta zutik jarraitzen duen elkartasuna, babesa eta laguntza.

27 auzipetu hauen lana eta traiektoira politikoa erabat publikoa eta guztion alde-rik ezaguna izateaz gainera, aitortua izan den eta den lana egiten dute. Euren zeregina, besteak beste, euskal preso, errefuxiatuen, deportatuen edota atxilotuen eskubideak errespetatu eta aitortu daitezkeen exijitza da, edota Estatu indarkeriaren ondorio diren gerra zikina, tortura, inkomunikazioa, espetxe politika, dispertsioa, espetxe-tako bizi baldintzen gogortzea, komunikabideen itxierak, debekuak, ilegalizazioak, isunak... salatzea. Eta hain zuzen, horixe da Estatuak isilarazi nahi duena, izan ere, errepresioaren salaketak errepresioaren beraren zilegitasuna zalantzan jartzen duelako, gizarte eta munduaren aurrean Estatuaren demokrazia eza agerian uzten dutelako, eta elkartasunak errepresioaren helburu eta ondorioak mugatu edota arintzen dituelako. Eta, gainera, errepresio bideen porrota eta antzutasuna begi bistan uztearekin batera, inoiz baino nabarmenago gelditzen dire-

lako gatazka politikoaren konponbide demokratiko batek bere baitan jaso behar dituen oinarriak, hala nola, eskubideen errespetua, amnistia eta indar polizial, okupatzaile eta zapaltzaileak Euskal Herri-rik alde egin behar dutenaren ezinbestekotasuna, konponbide demokratiko batera helduko bagara (...).

Horregatik, ostiral honetarako deitu den mobilizazio egunarekin bat egiten dugu, benetan uste dugulako Euskal Herriak inoiz baino premiagoa duela Askatasuna. Euskal herritarrei kalera ateratzeko deia egiten diegu, auziperatuak eurek auzitegitik bertatik jada egin duten salaketa (defentsari uko egin) eta hartu duten konpromisoa geure egin, eta Euskal Herriko kaleetan zabal dezagun.

Usurbilan manifestazioa 20:00etan abiatuko da, frontoi atzetik.

Usurbilgo amnistiaren aldeko mugimendua

Lasarte izango da lehen aurkaria

Asteburu honetan hasiko da Herri Arteko Pilota Txapelketa

90eko hamarkadan, faboritoen artean izaten zen Usurbilgo taldea. Garai haiek pasa ziren baina orduko ilusio berbera dute gaurko pilotari gazteek. Lasarte-Oriako pilotariak izango dira usurbildarrek izango dituzten lehen arerioak. Gogor prestatu dute asteburu honetako norgehiagoka. Enrike Huizik eman dizkigu txapelketa honen xehetasunak.

NOAUA! Aurten, zeintzuk izango dira herriko elkarteak ordezkatuko duten pilotariak?

Enrike Huizi. Kadeteen artean, Xabier Santxo, Markel Galarraga, Imanol Zinkunegi eta Julen Uli.

Jubeniletan, Eñaut Esnaola, Imanol Esnaola, Josu Ostolaza, Iban Arruti eta Aritz Aranburu.

Eta nagusien artean, Jabier Santxo, Iker Zinkunegi, Jon Olaizola, Enrike Huizi, Asier Portu, Xabier Errasti, Jon Esnal eta Aitor Iturralde.

ENRIKE HUIZI

“Faboritoak Azpeitia, Hernani eta Donostia direla esango nuke”

N. Herri Arteko Pilota Txapelketa asteburu honetan hasiko da eta lehen aurkaria Lasarte-Oria izango da. Zaila izango al da lehen kanporaketa hau gainditzea?

E. H. Kanporaketa berdinduta ikusten dugu. Kadete eta jubenil mailan aukerak ikusten ditugu irabazteko, baina nagusi mailan beraiek gehiago direlakoan gaude. Halere gogor borrokatuko dugu partida guztietan.

N. Etxean hasiko zarete jokatzeko. Berdinketa emango balitz, tanteoak hartuko lirateke kontuan, ezta?

E. H. Joanekeo partidak Usurbilen jokatuko ditugu, ostiral honetan, arratsaldeko 19:30ean. Joanekeoan hiru partida eta, bueltakoan, beste hiru. Lau edo gehiago partida irabazten dituen herria sailkatzen da hurrengo faserako. Berdinketa badago, hau da, hiruna partida irabazita, orduan tanteoa da garrantzitsua.

N. 90eko hamarkadan Usurbil puntan ibili zen, 1992an txapeldun izan zen eta 1993an txapeldun orde. Garai horiek berritzea urruti ala gertu ikusten al duzu?

E. H. Urte asko dira partehartzeko ari garela, eta emaitza onenak 1990, 1991 eta 1993an azpitxapeldun, eta 1992an txapeldun geratu ginen. Orain urruti samar gaude emaitza horiek lortzeko, baina saiatu gabe ez gara geldituko.

N. Nortzuk dira Herri Arteko Txapelketa irabazteko faborito nagusiak?

E. H. 26 herrik parte hartuko dute, eta herri asko dira. Irabazteko aukera gehien dutenak Azpeitia, Hernani eta Donostia direla esango nuke. Gero beste hiru edo lau herri egongo dira ezustekoa emateko prest: Arrasate, Andoain, Azkoitia...

N. Usurbilgo Pilota Txapelketa hasita dago. Pozik orain arteko partidekin eta partehartzearekin?

E. H. Usurbilgo pilota txapelketa ongi doa, poliki-poliki denetariko partidak ikusiaz: onak, ez hain onak...

IMANOL UBEDA



OSTIRAL HONETAN, ARRATSALDEKO 19:30EAN JOKATUKO DA USURBILEN JOANEKEO PARTIDA.

Usurbilgo taldea ordezkatuko duten pilotariak

Kadeteak:

Xabier Santxo
Markel Galarraga
Imanol Zinkunegi
Julen Uli

Jubenilak:

Eñaut Esnaola
Imanol Esnaola
Josu Ostolaza
Iban Arruti
Aritz Aranburu

Nagusiak:

Jabier Santxo
Iker Zinkunegi
Jon Olaizola
Enrike Huizi
Asier Portu
Xabier Errasti
Jon Esnal
Aitor Iturralde

Ostiral honetan amaituko da “Enjoy English” ikastaroan izena emateko epea

Udarregi ikastolako ikasleek ingelera era dibertigarri batean ikasteko aukera aparta dute. Irakasle natiboekin eta talde txikitik. Ikastaroa ekainaren 25ean hasi eta uztailaren 22an amaituko da. Baina izena emateko epea aste honetan bertan amaituko da.

Enjoy English ikastaroaren hezitzaileak jatorrizko hiztun ingelesak dira. Izena ematen duten ikasleek jokoak, eskulanak, ipuin kontaketak, antzerkiak, proiektuak eta abar ingelera landuko dituzte. Eta dena Udarregi ikastolan bertan.

Ikastaroa, udan eta goizez

Gaztetxoak oporretan daudenez, ikastaroa goizez eskainiko da, 9:00etatik 13:00era, astelehenetik ostiralera.

Adinaren arabera bi talde osatuko dira.

A taldean, 5, 6 eta 7 urteko ikasleak bilduko dira. B taldean, berriz, 8, 9, 10, 11 eta 12 urtekoak.

Enjoy English ikastaroak irauten duen denboran, hezitzaileak ikasleen familietan egongo dira. Gainera, hezitzailea bere etxean hartzen duenak ez du matrikularik ordaindu behar izango.

Izena emateko epea apirilaren 25ean amaituko da. Baina begiraleak hartzeko etxerik ez balego, udalekua bertan behera utziko lukete.



JOKOAK, ANTZERKIAK... MODU ATSEGINEAN IKASIKO DUTE INGELERA.

Ikastaroa Udarregi ikastolan egingo da

NON: Udarregi ikastolan.

NOIZ: ekainak 25- uztailak 22.

ORDUTEGIA: 9:00-13:00, astelehenetik ostiralera.

A TALDEA: HH3, LH1, eta LH2ko ikasleak (5,6,7 urte).

B TALDEA: LH3, LH4, LH5 eta

LH6ko ikasleak (8,9,10,11 eta 12 urte).

PREZIOA: Ikasle kopuruaren arabera izaten da (280 euro inguru). Begiralea etxean hartzen duen familiak ez du matrikularik ordaindu behar izango.

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: apirilak 25 ostirala, Udarregi ikastolan.

“Apelliduak abizendu” kanpaina martxan jarri da berriz ere

Buruntzaldeko biztanleok aukera paregabea izango dugu izena edota abizenak euskarazko grafiara aldatzeko. Izan ere, Buruntzaldeko udalek “Apelliduak abizendu” kanpainaren edizio berri bat jarri dute martxan, eta, aurrekoetan bezala, prozedura oso erraza da.

Zure abizenaren grafia aldatu nahi baduzu, aurkeztu beharreko agiri hauek izan behar dituzu eskura:

- Errolda agiria. Udaletxean eskatu

behar da.

- **Jaiotze-agiri literala:** Bake Epaitegian egingo dizute (Kale Nagusia, 4 behe; telefono zenbakia 943 372 336). Donostian erregistratuta bazaude, Donostiako Erregistro Zibilera joan behar duzu.

- **NANaren fotokopia.**

- **Famili liburua** (ezkonduta egonda edo seme-alabarik izanez gero).

Dena den, argibide gehiago Usurbilgo Euskara Zerbitzuan jasoko duzue, 943 371 999 telefono zenbakian, edota Bake Epaitegian bertan.



KANPAINA ESKUALDE OSOAN EGINGO DA.

MAHUKA
ETXEBESTE KALEA, 3- 943 361 106

Hemen aurkituko duzu
gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

CLIMATA-T
klimatizazio orokorra

687 858 390
climata_t@yahoo.es

Industri eta iragarkeri
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

OSU

943 371 954
UGALDEA POL.36-2-USBIL

Komisioen Inprimaketa

Antzerki taldeko kide izan nahi duzu?

Apirilaren 28ko bilera irekian partehartzeko deialdia egin da

Pasa den apirilaren 12an ospatu zen Lehen Kale Antzerki Egunean herrian sortu berri den Txerriki antzerki taldearen emanaldia ikusi ahal izan zen. Kaxko guneko kaleak eta zenbait etxebizitzetako balkoi inguruak aztoratu zituzten aktore lanetan jardun zuten herritarrek.

Antolatzaileek argi zioten, ez zutela egun horretarako soilik funtzionatuko zuen taldea izan nahi. Urtean zehar emanaldi gehiago prestatu eta eskaintzeko bokazioz sortu zutela Txerriki. Jarraipena eman nahi ziotela Lehen Kale Antzerki Egunean ekindako bideari.

Deialdia irekia da

Bide horretan, antzerki taldeko arduradunak aurrerantzean prestatzekoak diren antzezlantetan parte hartu nahi dutenekin bilduko dira apirilaren 28an. Beraz, antzerkigintzan jarduteko gogoia dutenek hitzordua dute egun horretan Sutegin, 20:00etan.

Antolatzaileek zioten bezala, antzer-



APIRILAREN 12AN OSPATU ZEN LEHEN KALE ANTZERKI EGUNA. TXERRIKI TALDEKOEK ESKAINI ZUTEN EMANALDIAREN ONDOREN ATERATAKOA DA ARGAZKIA.

kia egiteko gogoia duen orok parte har dezake taldean. Datorren asteko deialdia irekia da. Horregatik, hilaren 28ko hitzordura agertu nahi baina ezin dutenek Ixabel Agirresaroberekin edota Alex Telloekin harremanetan jar daitezela. Edota deitu NOAUA!-ra; 943 360 321.

Bilera Sutegin egingo da

Eguna: apirilak 28, astelehena.

Tokia: Sutegi.

Ordua: 20:00etan.

Deitzailea: Txerriki taldea.

Nori zuzendua: antzerki zaleei.

“Voces del desierto” dokumentalarekin hasiko da Jexux Artzeren omenezko zikloa

Sahara, artean Espainiaren kolonia zeneko azken urtetatik Tindufeko kanpamendura iritsi ziren arteko historia kontatzen da “Voces del desierto” dokumentalean. Maiatzaren 3an Sutegin eskainiko duten ikusentzunezkoarekin hasiko da Jexux Artze Kultur Elkarteak antolatu duen zikloa.

Errefuxiatuek kontatzen dute nola antolatu duten kanpamenduan euren bizimodua: elikadura, ura, etxebizitzak, osasuna, hezkuntza, kultura... Bere lurra berreskuratzeko itxaropena duen eta autodeterminazio erreferenduma



SAHARAKO EGOERA DU AZTERGAI MAIATZAREN 3KO DOKUMENTALAK.

galdatzen duen herria agertuko zaigu.

NOIZ ETA NON: Maiatzak 3 larunbata, 19:30ean Sutegin. Ondoren, Beñat Hach Embarek-en hitzaldia euskaraz.

IRAUPENA: 40 min.

Datorren astean, Andatza Eguna

Maiatzeko lehen igandearekin batera ospatzen da Andatza eguna. Ohiturari jarraituz, eguerditik aurrera erromeri giroa izango da Andatza mendian.

11:00etan, salda, txorizoa, haragi egosia eta edaria banatuko da bertan biltzen direnen artean. Eta 12:00ak aldera, herri kirolak eta jokoak hasiko dira, haurrentzat nahiz helduentzat.

Bazkaria norberak berea eraman beharko du baina antolatzaileek kafea eta kopa banatuko dute. Aurten ere, elkarlanean arituko dira Zizurkilgo Ziotza elkarte eta Usurbilgo Andatza Mendi Elkarte, bi Udalen babesarekin.

Ostiral honetan, Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa

Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren lehen kanporaketa jokatu da ostiral honetan Usurbilen. Gipuzkoako ikastetxe ezberdinetako neska-mutilek hartuko dute parte. Bi maila hauetan lehiatzeko aukera izango dute: bat-batekoan edota bertso-paperetan.

Eskolarteko Txapelketa honek hiru fase izango ditu. Lehenik, ikastetxe barruko aukeraketa egingo da. Bigarrenik, eskualdeko kanporaketak jokatu dira. Eta hirugarrenik, azken saioa edo finala, Irurako pilotalekuan. Apirilaren 25ean Usurbilen jokoan



15:00ETAN HASIKO DA
ESKOLARTEKO TXAPELKETA,
UDARREGIN NAHIZ KIROLDEGIAN.

izango dena, beraz, eskualdeko kanporaketa izango da. Arratsaldeko 15:00etatik aurrera, bat-bateko kanporaketa saioak Oiardo kiroldegian jokatu dira. Eta bertso-paper mailako kanporaketa, aldiz, Udarregi ikastolan.

Giro ederra Bertso Eskolen Egunean

Gorria izan izan zen nagusi pasa den Egunean. Kolore horretako kamisetak jaso zituzten iritsi ahala, Gipuzkoako hainbat herritatik hurbildu ziren bertsozale gazteak. Goizean goiz hasi ziren bertso-jolasak. Bazkaltzeko orduan, Oskar Estanga izan zen frontoia girotzeaz arduratu zena. Bere gitarraren laguntzaz, euskal kantu ezagun ugari abestu zituen.

Arratsaldean, Jon Maia eta Uxue Alberdi kantuan izan ziren Udarregin; eta Gu ta Gutarrak taldekoak, berriz, Sutegin.

Gipuzkoako bertso eskoletako ikasleek, egun ederra pasa zuten.



UXUE ALBERDI ETA
JON MAIA, UDARREGIKO
PATIDAN KANTARI.

Argazki Lehiaketan partehartzeko epea amaitzera doa

Santuenea Kultur Elkartek Santolatzen duen argazki lehiaketak hirugarren edizioa bete du aurten. Argazki bakarra aurkeztu beharko da eta udaberriarekin lotutako irudia izango da. Lehiaketan partehartzeko epea apirilaren 29an amaituko da.

Lehiaketa honetan Santuenea elkarteko edozein bazkidek har dezake parte, 14 urte bete gabe baldin baditu.

Parte hartu duten guztiei sari txiki bat emango zaie.

Argazkiak aurkezteko azken eguna apirilaren 29a izango da, arratsaldeko 19:00etan. Santueneko ludotekan aurkeztuko dira argazkiak, gutunazal itxian, azalean izen abizenak eta adina jarriaz.

Irabazleen izenak maiatzaren 13an jakinaraziko dira. Informazio gehiago, Santuenea Kultur Elkartean.



IAZ, OIHANA IBARRAK AURKEZTU
ZUEN ARGAZKIA DA HAUXE.

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
© 943 69 68 52 · 620 800 186

Ostiral honetan mobilizazio eguna, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta

Ostiral honetan iluntzeko 20:00etan hasita, manifestazioa egingo da Usurbilen. Frontoi atzetik abiatuko da eta, era honetan, Amnistiaren Aldeko Batzordeko 27 kideren aurka hasi den epaiketa salatu nahi dute.

Epaiketa astelehenean hasi zen Madrilgo Auzitegi Nazionalean. Juan Mari Olano Amnistiaren Aldeko Batzordeen bozeramaile ohia izan zen deklaritzen lehena. Auzitegi Nazionala "inpartzialtasunetik milaka kilometrora" dagoela salatu zuen

Olanok.

Amnistiaren Aldeko Batzordeen aurkako prozesuan auzipetuta dauden 27 pertsonen uko egin zioten beren burua defendatzeari, epaia "jada idatzita" dagoela uste baitute.

Bere burua defendatzeari uko egin eta eskatutako froga guztiak albortzeko eskatu zuten auzipetuek. Hasieran, 200 lekuko baino gehiago deitu zituzten deklaratzera, baina azkenean 20 bat baino ez dira epaile aurretik pasako.

Datorren astelehenean egingo dute epaiketaren bigarren saioa. Egun



MANIFESTAZIOA ILUNTZEKO 20:00ETAN HASIKO DA. IRUDIAN DEITZAILEAK, PRENTSAURREKOAN.

horretan, Fiskaltzak eta AVTk eskatutako lekukoek deklaratu dute.

Lan istripuak salatzeko ordubeteko lanuztea deitu dute

LABek ordubeteko lanuzte deialdia egin du apirilaren 28rako, Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna dela-eta. Lan istripuak salatu nahi ditu sindikatuek eta ezbehar horiek izaten dituztenekiko elkertasuna adierazteko asmoa du.

Administrazio publikoak "arduragabekeriak" jokutzen duela dio LABek, eta "segurtasun eredu ezberdina" aldarrikatu du, bide batez. Deialdiarekin bat egiteko proposamena egin die gai-nontzeko sindikatuei.

"Lan baldintzek sortutako gaixota-

sunak" ere salatu ditu LABek: "Langileen osasuna pixkanaka okertu eta azkenean egoera larrian uzten duten lan baldintza ugari dago".

Aldarrikapen eguna

1995 urteaz geroztik, apirilaren 28a laneko segurtasun eta osasunaren nazioarteko egunean bilakatu da. Kanadako sindikatuen ekimenez ezarri zen, egun horretan Amerikako Estatu Batuetako Bridgeporten erakuntzako 28 langile hil zirela gogora ekarri nahian.

Ordutik, mundu osoko sindikatuek bat egiten dute lan baldintza duinen



DATORREN ASTELEHENERAKO ORDUBETEKO LANUZTEA DEITU DUTE.

aldeko aldarrikapenarekin. LABen ustez, ez du jai eguna izan behar, aldarrikapen eguna baizik.

Xukin Andoni Errazkin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
663 08 76 71 • USURBIL

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.ESK 943372937 • 659602789

Alkartasuna Nekazal Kooperatiba, ehun urtez hornitzaile lanetan

Ehun urte bete ditu baserritarrek lehengaiak hornitu asmoz, 1908an sortu zen Alkartasuna Nekazal Kooperatibak. Gutxienez mende laurden igaro da, etenik ez duen aldaketa prozesua martxan jarri zenetik. Egokitzea da eta, Alkartasunakoentzat, aurrera begira jarraitzeko giltzarria. Eta ehun urteak ospatzea, kooperatiba gutxi direlako gaur egun, urtemuga hori bete dezaketanak.

Baserritarrek lehengaiak lortzeko zituzten arazoei aurre egin asmoz sortu zen Alkartasuna Kooperatiba edo *sindikatura*, 1908an. Zehazkiago aipatzearren, orduko aktak dienez ekainaren 8an jarri zuten martxan. Garai hartan, hornitzaile lanetan jardutea helburu zuten horrelako kooperatibak ugaritu egin ziren han eta hemen, denbora tarte txikian.

ELKARLANAREN EMAITZA

“Udala, eliza eta nekazariak izan ziren kooperatiba hauen bultzatzaileak”

Gipuzkoa mailan, herri gehienak kooperatiba bat izatera ailegatu ziren, asko eta asko Alkartasuna izenez bataiatuak. Izenak izanetik ere bazuen eta. Kooperatiba deitzeko moduak herrian pisua zuten hiru erakunde edo talde soziali egiten zion erreferentzia. Udala, Eliza eta nekazariak izan baitziren kooperatiba hauen bultzatzaileak. Elkartuta, errazago eta merkeago lor zitzaizkiren hain beharrezkoak zituzten lehengaiak.

Egokitzeak etenik ez

Azken hogeita bost urte hauetan jasan ditu aldaketa gehien Alkartasuna Kooperatibak. Ordura arte izandako lehengaien hornitzaile funtziora mugatu ordez, zerbitzu eskaintza zabaltzen joan



1908KO EKAINAREN 8AN JARRI ZUTEN MARTXAN ALKARTASUNA KOOPERATIBA. GAUR EGUN, EHUNDIK GORA BAZKIDE DITU.

da azken hamarkadetan. “Baserritarrek baita ere beste premia batzuk zituztela jabetu ziren. Pixkanaka, beste bezero batzuei zailak egiten zitzaizkien gaiak lortzea erraztu da”, argitu du Kooperatibako lehendakari Jakoba Errekondok.

Eskaintza hedatzen joan ahala, herritar gehiagorengana iritsi dira, egokitzen joatea baita haien giltzarri nagusia. Hala, gaur egun nekazariak gain, haien bezero zerrendara erantsi dira etxean lorategi edo baratza txikiak dituztenak, norbere elikaduraz arduratuta daudenak...

2001. urteaz geroztik, Ugartondo industrialdean kokatzen da Alkartasuna Kooperatiba. Sarreran plaka handi batean honakoa irakur daiteke; “Lurra bizirik, baserria bizirik, herria bizirik”. Hiru elementu horien arteko lotura estua agerian geratzen da, baita kooperatibakoan lan filosofia ere. Lurra babestu, errespetatu eta produktu kimikoak ahalik eta gutxien erabiltzean oinarritzen den nekazaritza ekologikoa defendatzen dute. “Lurra bizirik ez dagoen leku batean

herririk ez dago” adierazi du Errekondok. Horregatik, bere esanetan, “azkenean lan hori giza-talde batek egiten du eta babestu beharra dugu”.

Laster, Atallura

Duela zazpi urte inauguratu zuten egun duten Ugartondon kokatzen den egoitza. Jauzi handizat definitzen dute egoitza berria ireki izana; biltegi izaera zuen gunea batetik saltoki itxura eman nahi izan zioten pabilioian lan egitera pasa baitziren.

Baina ez da haien behin betiko gunea izango. Jakina denez, Ugartondon erakitzeak diren etxebizitzek lekuz aldaraziko ditu Alkartasunakoak. Atallun dagoeneko bukatzean dituzte biltegi berriko lanak. Bertan, kokatuko da makineria saldu eta konpontzeko denda handi bat. Baserrirako edo etxerako baliatzen den tresneria erosi ahal izango da bertan. Gainera, sistema automatizatu gaseo bakarrik salduko duen gasolindegia bat ere irekiko dute. Horrekin batera, energia berriztagarrien

aldeko apustua egin nahi dute. "Plaka fotovoltaikoak jarriko ditugu pabilioiaren gainean", adierazi du Kooperatibako kudeatzaile Asier Kortadik.

Baina Atallu Kaxkotik urrun geratzen da. Horregatik, Alkartasunakoen asmoa, Atallun biltegia izaten jarraitzea da. Eta herritarrengandik gertutasun hori mantendu nahian, Ugartondoko etxebizitzak eraiki ostean, gune horretan bertan denda berri bat zabaltzea.

Sagarlan-ekin bat egitea

"Sagarrarekin lotutako ekoizpena Usurbilen gelditzea oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu", adierazi du Errekondok. Horren aldeko apustua egiten dute Alkartasunatik eta jakinarazi dutenez, Sagarlan-ekin bat egingo dute. Modu horretan, enpresa handitu eta langintza horri bestelako maila bat eman nahi diote.

Itxieren aurrean,

Alkartasuna salbuespen

Pasa den mende hasieran, kooperatiba ez zuten herriak Gipuzkoan gutxi baziren, orain justu alderantzizkoa gertatzen da. Alkartasunakoa bezalako kooperatiba asko itxi dira azken urteetan. "Orain asko jota hamar egongo dira", adierazi du Errekondok. Usurbilen halakorik ez dela gertatuko dirudi. Bestelako joera nabari da bertan; betidanik lanean jardun duten bi lagunetik sei izatera igaro baitira. Eskaintza anitzagoa da, herritar gehiagorengana iristen dira eta bazkide kopurua hazten doa.

ARITZ GORRITI

Bazkideak, Kooperatibako oinarri

Alkartasunako erosle edo bezeroa izateaz gain, bertako bazkide izateko aukera dago. Hala eginez gero, trukean erraztasunak eta onura ekonomikoak jasoko ditu bazkide berriak; besteak beste, deskontuak erosketak han egiterakoan.

"Geuk ulertzen dugun nekazaritzaren ikuspegi honen alde egotea nahikoa da, bazkide izateko. Baserritarrak direnak eta ez direnak animatu nahi ditugu", adierazi du Errekondok. Usurbilgoak, baina baita herri honekin muga egiten dutenetako biztanleek ere bazkide izateko aukera bera dute.

Hortaz jabetuta, geroz eta gehiago dira Kooperatibako kide direnak. Gorantz egin du kopuruak azken urteetan. "Urteko bataz beste hiru bazkide gehiago daude", adierazi du kudeatzaile Asier Kortadik. Une honetan ehunetik gora dira:

Zubieta	24
Urdaiaga	25
Kalezar	18
Kaleberri	27
Aginaga	16
Kanpokoak	10
Guztira	120

Auzokako bazkide ordezkartza sistema antolatua dute Alkartasunan.



2001 ETIK HONA, UGARTONDON DAGO SINDIKATUA. IRUDIAN, ORDUKO INAUGURAZIO EKITALDIA.

Auzo bakoitzak bi ordezkari ditu eta batzordeko kide bakoitza bi urtetarako izendatzen da. Batek uzten duenean berri bat sartzen da, bigarrena mantenduz. "Kooperatiba ez da gauza orokor bat, baizik eta baserri edo bazkide bakoitzetik hasten den piramide bat", argitu du Errekondok.

Bazkideak piramide horren oinarri dira eta haiek dira hainbat ideia edota proposamen egiten dituztenak. Baita kexak agertu ere. Lehengaien prezioak gorantz egitea herritar askoren kezka-iturri bihurtu da azken aldian. Mundu-mailako fenomeno izanik, hurbiletik eragiten duen egoera da. Bazkideen arteko gai izarra da azken aldian. "Kexak dira azken aldian, pentsuak eta ongariak zer nolako gorakada izan duten ikusita", adierazi du Asier Kortadik.

Mendeurreneko ospakizunak

Iraganari begiratu eta etorkizuneko erronkak definitzearekin batera, ehun urte ez dira egunero betetzen eta ospatu beharra dago. Alkartasunakoek ekitaldi sorta prestatu dute urte amaierara arte. Logotipo lehiaketarekin ekin zioten, hitzaldiak iragartzen dituzte eta baita mendeurrena betetzen den egunerako jaialdi eder bat ere.

Eguna iritsi ahala emango ditugu xehetasun gehiago. Datorren astean, aldiz, lurraren prestaketa buruzko hitzaldia antolatu dute. Leire Ibarretxe aditua "Lurraren prestaketa, ongarriketa eta konpostaz" arituko da hizketan. Sutegin eskainiko duen hitzaldian, lur motak azalduko ditu, ongarriketa ezberdinei buruz hitz egingo eta eta konpostaketa egiteko

moduetan ere jardungo du.

Lurra eta ongariak hizpide Hitzaldia: "Lurraren prestaketa, ongarriketa eta konposta".

Hizlaria: Leire Ibarretxe.

Noiz: Apirilak 29 asteartea

Non: Sutegin, arratsaldeko 19:00etan.

Sarrera: doan.

Aurtengo kanpaina ekainaren 25era arte luzatuko da

Errenta Aitorpena egiteko garaia iritsi da

Iritsi da 2007 urteko kontuak argitzeko garaia. Errenta Aitorpena egiteko epea zabaldu da eta milaka herritar dagoeneko hitzorduak eskatzen eta bete eta entregatu beharreko dokumentazio bila arituko dira

honez gero. Gogoratu, euskaraz egin daiteke Errenta Aitorpena. Aurrerantzean, Foru Ogasunarekin izan beharreko harremana ere euskaldundu daiteke bide batez, Errenta Aitorpena egiterakoan.

Nobedadeak

Aurtengo Errenta Aitorpenak berrikuntza edo aldaketa dezente dakartza. Bat baino gehiago kenkari edo dedukzioei lotutakoak. Errentatzailearen aldeko kenkaria desagertu da, kuota sindikalek %30eko kenkaria izango dute, eta sarrerek ez dute dedukziorik izango.

Bestetik, adineko edota ezgaituek tratamendu fiskal hobea jasoko dutela iragarri dute, kenkariak gehitu baitira eta Menpekotasun Legetik datozen prestazio ekonomikoak salbuetsi baitituzte. Lan etekinen hobari orokorrak ere handitu dira.

Autolikidazio proposamena iaz jaso zuten 40.000 zergaduni, arrazoiz ezberdinak tarteko ez zaie aurten iritsiko. Horren berri emateko gutuna jasoko dute. Nolanahi ere, gero eta gehiago dira autolikidazioak jasoko dituzten herritarrak. 2006ko ekitaldian Buruntzaldeko herrietan egindako errenta aitorpen guztien %40 inguruk erabili zuen modalitate hau.

IZAERA SOZIALEKO KANPAINA

“Adinekoek edota ezgaituek tratamendu fiskal hobea jasoko dutela iragarri dute”

Datu fiskalak, on line

Pasa hitz bat izanda, Ogasuneko informazioa ikusi eta gorde daiteke. Hartara, bildutakoa aitorpena egiteko frogagiri gisa balia liteke. Pasa hitza www.gipuzkoa.net atarian eskatu behar da eta zerga bulegoetan jaso.



HERRITAR ASKO JOANGO DIRA ERRENTA AITORPENA EGITERA DONOSTIAKO FORU OGASUNEKO EGOITZARA.

Eskatu euskaraz

Aldunditik adierazi bezala, Errenta Aitorpena bezalako tramiteak euskaraz egiteko joera indartzen ari da. “Aldeko politika dagoenean, herritarren erantzuna handiagoa da”, adierazi du Foru Ogasuneko Itzulpen Zerbitzuko langile Mikel Azkaratek. Errenta Aitorpena euskaraz egitera deitzen ditu herritarrak. Azkarateren esanetan, “administrazioak jakin dezan zer nolako eskaria dagoen.

Euskaldun bezala, lehen hitza beti euskaraz”. Horrekin batera, Errenta Aitorpena egiterakoan, langilei aurrerantzean Ogasunarekiko harremanak euskaraz nahi dituztela jakinaraztea komeni da.

Protokoloa

Foru Ogasunak hizkuntz irizpideei lotutako protokoloa egina eta martxan jarria du. Egitasmo horren arabera, herritar bat sail horretako langile

Errenta Aitorpena 2007

Auto likidazio proposamenak onartzea: 2008/4/14-2008/5/9
 Nork bere aldetik (Diskete, paper edota Internet bidez): 4/18-6/25
 Mekanizaturako hitzordua eskatzeko: 2008/4/17-2008/5/15
 Aitorpenak aurkezteko epea: 2008/4/18-2008/6/25
 Informazio telefonoa: 902 100 040 (8:00-15:00)
 Webgunea: www.gipuzkoa.net

batengana zuzentzean, azken honek euskaraz agurtu behar du bezeroa. Herritarrak errenta aitortpena euskaraz egin nahi badu, euskaraz erantzun beharko lioke. Langilea euskaraz ondo moldatuko ez balitz, herritarrak beste langile batekin egoteko aukera du. Bestalde, Errenta Aitorpena egindakotan, une horretatik aurrera herritarrak Ogasunarekin izan beharreko harremana euskaldundu nahi ote duen galdetuko dio langileak. Herritarrak zer erantzuten duen, hura zehaztuko du langileak Ogasunak duen programa informatikoan. Ogasunak bezeroaren hizkuntz eskakizuna kontuan hartu dezan aurrerantzean.

WWW.GIPUZKOA.NET ATARIAN AURKITUKO DUZUE INFORMAZIO BEHIAGO.

GESTORJETAN ERE BAI

“Artekarien artean CDak banatu dituzte, ohiko dokumentuen euskarazko bertsioekin”

Buruntzaldeko kanpaina gestoretan

Ez dira gutxi Errenta Aitorpena gestoria edota bankuen bidez egiten dutenak. Bertako langileekin hartu emanak euskaraz izateko aukera dago gehienetan. Baina baita bertako hainbat dokumentazio euskaraz jasotzeko ere.

Iaz ahalegin berezia egin zuten alor horretan Buruntzaldeko Euskara Bazardeek.

Abian jarritako kanpainarekin bat egin zuten gestoretara joanez gero, artekariak erabili ohi dituzten dokumentuak euskaraz lortu zitezkeen; hala nola, zerga aitortpena eta nomina.

Artekarien artean ere CDak banatu zituzten. Euskarri horietan, aipatu profesionalek ohikotasunez erabiltzen dituzten dokumentuen euskarazko ereduak biltzen dira. Baita alorrari buruzko hiztegi kontzeptuala ere.

Hiztegi erabilgarria

Atxikipen	Retención
Errenta aitortpen, PFEZaren aitortpen	Declaración del IRPF
Errentamendu	Arrendamiento
Etekin garbi	Rendimiento neto
Etekin gordin	Rendimiento bruto
Ezkontide	Cónyuge
Frogagiri	Justificante
Hobari	Bonificación
Kenkari	Deducción
Lan etekin	Rendimiento de trabajo
Lanbidearteko gutxieneko soldata	Salario mínimo interprofesional
Mailegu	Préstamo
Oinordeko	Heredero
Ondare	Patrimonio
Ondasun higiezin	Inmueble
Ondasunak banantzeko erregimen ekonomikoa	Régimen económico de separación de bienes
Ondorengo ahaide	Descendiente
Salbuetsi	Exento
Zerga ekitaldi	Ejercicio fiscal

Udako kanpaldia prestatzen hasi da Ziortza

Mali afrikar herrialdearen aldeko elkartasun jaia prestatua zuten Ziortza Gazte Elkartekoek; larunbat honetarako, hain zuzen. Baina aste honetan bertan jakinarazi digutenez, bertan behera geratu da ekimena. Martxan dagoena, ordea, udako kanpaldia da. Dagoeneko 50 lagun animatu dira eta izena emateko epea zabalik jarraitzen du oraindik. 9 eta 16 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dagoen kanpaldi hau, beste behin ere, Errioxa aldean egingo da uztailaren 7tik 20ra.

Ziortzak uztailean antolatu ohi duen kanpaldira joateko dagoeneko 50 gaztek izena eman dute. Horregatik, antolatzaileek jakinarazi dutenez, dagoeneko taldea osatu da eta kanpaldia egin ahal izango da.

Kanpaldirako izen-ematea zabalik dago oraindik

Aldaketarik ez bada, Santixabelak amaituta, uztailaren 7tik 20ra bitartean joango dira Peñaloscintos (Errioxa) aldera. Hala ere, izena ema-



ZIORTZAREN UDAKO KANPALDIRA JOATEKO, 50 GAZTE ANIMATU DIRA.

teak irekita jarraitzen du. 9-16 urte artekoei zuzenduta dago Errioxa aldera joateko proposamena.

Izena emateko bi modu daude; 638 524 710 zenbakira deituta edo bestela ziortzage@gmail.com helbidera e-posta bidalita. Ziortzakoek deialdi bikoitza egin dute gainera;

Peñaloscintosera joan nahi duten gaztetxoei zuzendua baina baita begirale gisa jardun nahi dutenei ere, anima daitezten. Bestalde, antolatzaileak kanpaldira joateko asmotan diren gazteen gurasoekin biltzekoak dira.

ARITZ GORRITI _____

Felix Aizpurua Literatura Lehiaketara aurkezteko epea datorren astean amaituko da

Apirilaren 30ean amaituko da Felix Aizpurua Literatura Lehiaketan parte hartzeko epea. 8 eta 16 urte bitarteko usurbildarrei zuzenduta dago lehiaketa.

Udarregi ikastolako haurrei duela egun batzuk banatu zitzaizkien lehiaketaren oinarriak. Bide batez, 2007ko edizioan sarituak izan ziren lanekin osatu den liburua ere argitaratua izan da eta hori ere banatu da

ikasleen artean.

Gogoan izan 8 eta 16 urte bitarteko usurbildarrei zuzenduta dagoela Felix Aizpurua Literatura Lehiaketa. Lanak apirilaren 30a baino lehen bidali behar dira.

Epaimahaikide hauek sarituko dituzte lanik txukunenak: Luis Aranalde, Xabier Pikabea eta Juan Luis Zabala.

Informazio gehiago, udal euskara batzordean: 943 371 999.



IAZKO LANEKIN OSATUTAKO LIBURUA ARGITARATU BERRI DU UDALAK.

Asteburu honetan Kantabrian arrituko dira eskubaloi taldeko neskak

Espainiako Txapelketa jokatzeko txartela eskuratu zuten eta asteburu honetan, zonaldeko lehen fasea jokatu beharko dute, Kantabrian hain zuzen. Kanariarrak, andaluziarrak eta kantabriarrak izango dira lehen aurkariak.

Euskadiko Txapelketan bigarren postua eskuratu zuen Usurbil Kirol Elkarteko jubenil mailako neska taldeak eta, horri esker, Espainiako Txapelketa jokatzeko aukera izango dute. Kanariarrak, andaluziarrak eta kantabriarrak izango dira Usurbil KE taldeko nesken lehen aurkariak.

Nerea Aguadok zuzentzen duen taldea denboraldi ederra osatzen ari da, Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketetan bigarren geratu baita. Ea Kantabrian ere maila bera erakusten duten.



JUBENIL MAILAKO TALDEA DENBORALDI TXUKUNA OSATZEN ARI DA.

XXXVI. Pilota Txapelketa, asteburu honetako partidak

APIRILAK 25 OSTIRALA, 19:00

KADETEAK

Aizpitarre-Lizeaga (Hernani)
Santxo-Santxez (Usurbil-Astigarraga)

Aristimuño-Mujika (Alkiza)
Irastorza-Ulana (Andoain)

APIRILAK 26 LARUNBATA, 10:30

KADETEAK

Etzaniz-Aizpuru (Azpeitia)
Loperena-Beola (Oiartzun)

Loidi-Maiza (Añorga)

Mendizabal-Ugalde (Usurbil-Oiartzun)

APIRILAK 27 IGANDEA, 10:30

JUBENILAK

Lizarribar-Barberia (Bidegoian)
Golosabel-Zendoia (Azkoitia)

Madariaga anaia (Txaruta)

Urruzmendi-Olasagasti (Igeldo)

NAGUSIAK

Barreros -Goikoetxea (Lazkao)

Santxo-E. Galarraga (Usurbil-Bidegoian)

Astehenean amaituko da paleta ikastaroan izena emateko epea

Aurreko astean aipatu genuen bezala, Usurbilgo Pilota Elkartek antolatu du pala ikastaroa eta 16 urtetik gorako emakumeei zuzenduta dago. Izena emateko epea datorren astean amaituko da.

Palaz eta teniseko pilotarekin arrituko dira ikastaro honetan. Maiatzaren hasieran hasi eta ekaina bukaeran amaituko da. Astean bitan egingo dira entrenamenduak, eta ordu eta erdiko iraupena izango du saio bakoitzak.

Ikastaro honetan oinarrizko ezagutzak irakatsiko ditu Usurbilgo Pilota Elkarteko begiraleak: beroketak, luzaketak, oinarrizko teknika lantzeko ariketak, oinarrizko taktika egiteko ariketak, araudia ezagutzeko ariketak eta oinarrizko gaitasun fisikoak.



IAZ PALETA TXAPELKETAN PARTE HARTU ZUTEN IKASLEAK.

Izena emateko epea apirilaren 28an amaituko da. Herritarrek lehentasuna izango dute, hori bai, ikastaroa 16 urtetik gorako emakumeei zuzenduta dago.

Izena emateko Oiardo kiroldegira jo behar da. Dena den, informazio gehiago eskuratu nahi duenak, dei dezala telefono zenbaki honetara: 653 72 80 59.

Autobus Orduetgia

Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40	>>	08.05	08.15	08.25	06.45	06.55	07.05	>>	07.30
08.10	>>	08.35	08.45		07.15	07.25	07.35	>>	08.00
08.40	>>	09.05	09.15	09.25	07.45	07.55	08.05	>>	08.30
09.10	09.30	09.35	09.45		08.15	08.25	08.35	>>	09.00
09.40	>>	10.05	10.15	10.25	08.45	08.55	09.05	>>	09.30
10.40	>>	11.05	11.15	11.25	09.45	09.55	10.05	>>	10.30
11.40	>>	12.05	12.15	12.25	10.30	10.40	10.45	>>	11.10
12.10	12.30	12.35	12.45		10.45	10.55	11.05	>>	11.30
12.40	>>	13.05	13.15	13.25	11.45	11.55	12.05	>>	12.30
13.10	13.30	13.35	13.45		12.45	12.55	13.05	>>	13.30
13.40	>>	14.05	14.15	14.25	13.30	13.40	13.45	>>	14.10
14.10	14.30	14.35	14.45		13.45	13.55	14.05	>>	14.30
14.40	>>	15.05	15.15	15.25	14.30	14.40	14.45	>>	15.10
15.10	15.30	15.35	15.45		14.45	14.55	15.05	>>	15.30
15.40	>>	16.05	16.15	16.25	15.45	15.55	16.05	>>	16.30
16.40	>>	17.05	17.15	17.25	16.30	16.40	16.45	>>	17.10
17.40	>>	18.05	18.15	18.25	16.45	16.55	17.05	>>	17.30
18.10	18.30	18.35	18.45		17.45	17.55	18.05	>>	18.30
18.40	>>	19.05	19.15	19.25	18.45	18.55	19.05	>>	19.30
19.10	19.30	19.35	19.45		19.30	19.40	19.45	>>	20.10
19.40	>>	20.05	20.15	20.25	19.45	19.55	20.05	>>	20.30
20.15	20.35	20.40	20.50	21.00	20.45	20.55	21.05	>>	21.10
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	21.15	21.25	21.35	>>	21.40
22.15	22.35	22.40	22.50	23.05					

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
08.00	08.20	08.25	08.35	08.45	06.45	06.55	07.05	07.10	07.30
09.00	09.20	09.25	09.35	09.45	07.45	07.55	08.05	08.15	08.40
10.00	10.20	10.25	10.35	10.45	08.45	08.55	09.05	09.15	09.40
11.00	11.20	11.25	11.35	11.45	09.45	09.55	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25	12.35	12.45	10.45	10.55	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.25	13.35	13.45	11.45	11.55	12.05	12.15	12.40
14.00	14.20	14.25	14.35	14.45	12.45	12.55	13.05	13.15	13.40
15.00	15.20	15.25	15.35	15.45	13.45	13.55	14.05	14.15	14.40
16.00	16.20	16.25	16.35	16.45	14.45	14.55	15.05	15.15	15.40
17.00	17.20	17.25	17.35	17.45	15.45	15.55	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.25	18.35	18.45	16.45	16.55	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25	19.35	19.45	17.45	17.55	18.05	18.15	18.40
20.00	20.20	20.25	20.35	20.45	18.45	18.55	19.05	19.15	19.40
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	19.45	19.55	20.05	20.15	20.40
22.00	22.20	22.25	22.35	22.45	20.45	20.55	21.05	21.15	21.40
22.30	22.50	22.55	23.05	23.15	21.45	21.55	22.05	22.15	22.40

LARUNBAT GAUETAN					LARUNBAT GAUETAN				
00.00	>>	00.25	00.35	00.45	23.15	23.25	23.35	>>	00.00
01.00 ^M	>>	01.25 ^M	01.35 ^M	01.45 ^M	00.15 ^M	00.25 ^M	00.35 ^M	>>	01.00 ^M
02.00	>>	02.25	02.35	02.45	01.15	01.25	01.35	>>	02.00
04.00	>>	04.25	04.35	04.45	02.15 ^M	02.25 ^M	02.35 ^M	>>	03.00 ^M
05.00 ^M	>>	05.25 ^M	05.35 ^M	05.45 ^M	03.15 ^M	03.25 ^M	03.35 ^M	>>	04.00 ^M
06.00	>>	06.25	06.35	06.45	04.15 ^M	04.25 ^M	04.35 ^M	>>	05.00 ^M
					05.15	05.25	05.35	>>	06.00

Zarautz	Orio	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orio	Zarautz
06.08	06.15	06.24	06.39	05.47	06.03	06.14	06.20
06.38	06.45	06.54	07.09	06.17	06.33	06.44	06.50
07.08	07.15	07.24	07.39	06.47	07.03	07.14	07.20
07.38	07.45	07.54	08.09	07.17	07.33	07.44	07.50
08.08	08.15	08.24	08.39	07.47	08.03	08.14	08.20
08.38	08.45	08.54	09.09	08.17	08.33	08.44	08.50
09.08	09.15	09.24	09.39	08.47	09.03	09.14	09.20
10.08	10.15	10.24	10.39	09.47	10.03	10.14	10.20
11.08	11.15	11.24	11.39	10.47	11.03	11.14	11.20
12.08	12.15	12.24	12.39	11.47	12.03	12.14	12.20
12.38	12.45	12.54	13.09	12.17	12.33	12.44	12.50
13.08	13.15	13.24	13.39	12.47	13.03	13.14	13.20
13.38	13.45	13.54	14.09	13.17	13.33	13.44	13.50
14.08	14.15	14.24	14.39	13.47	14.03	14.14	14.20
14.38	14.45	14.54	15.09	14.17	14.33	14.44	14.50
15.08	15.15	15.24	15.39	14.47	15.03	15.14	15.20
15.38	15.45	15.54	16.09	15.17	15.33	15.44	15.50
16.08	16.15	16.24	16.39	15.47	16.03	16.14	16.20
16.38	16.45	16.54	17.09	16.17	16.33	16.44	16.50
17.08	17.15	17.24	17.39	16.47	17.03	17.14	17.20
17.38	17.45	17.54	18.09	17.17	17.33	17.44	17.50
18.08	18.15	18.24	18.39	17.47	18.03	18.14	18.20
18.38	18.45	18.54	19.09	18.17	18.33	18.44	18.50
19.08	19.15	19.24	19.39	18.47	19.03	19.14	19.20
19.38	19.45	19.54	20.09	19.17	19.33	19.44	19.50
20.08	20.15	20.24	20.39	19.47	20.03	20.14	20.20
21.08	21.15	21.24	21.39	20.47	21.03	21.14	21.20
22.08	22.15	22.24	22.39	21.47	22.03	22.14	22.20
22.38	22.45	22.54	23.09				

00.00 Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Astelehenerik Igandera eta JAIEGAN
 (M) Udaz bazarrik 08/06/23 - 08/09/07

Eguneko goardiako farmaziak

Apirilak 24, osteguna
 De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Apirilak 25, ostirala
 Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Apirilak 26, larunbata
 Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte
 Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Apirilak 27, igandea
 Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Apirilak 28, astelehena
 Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Apirilak 29, asteartea
 Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Apirilak 30, asteazkena
 Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Maiatzak 1, osteguna
 Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Maiatzak 2, ostirala
 De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Maiatzak 3 larunbata
 Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte
 Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Maiatzak 4, igandea
 Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Correa Farmazia (22:00-09:00), Perkaiztegi
kalea, 8 Hernani 943 33 60 22
 *Usurbilen, soilik eguerdira arte

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
 Zubieta-Donostia
 7:55* / 9:30(T) / 13:15(T)
 14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
 (Gipuzkoa plazatik)
 7:15* / 9:00 / 12:45(T)
 13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
 Zubieta-Donostia
 8:15(T) / 12:45
 15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta
 (Gipuzkoa plazatik)
 12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
 Zubieta-Donostia
 11:25(T) / 13:30(T)
 15:30(T) / 21:35 (T)

Donostia-Zubieta
 (Gipuzkoa plazatik)
 11:00(T) / 13:00(T)
 15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da
 *: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

Tren Orduetgia

Agenda !

Apirilak 23 asteazkena

- Amaia Zinkunegi ipuin kontalaria, 18:00etan Sutegiko liburutegian. Bost urteko haurrentzat. Sarrera doan.

Apirilak 24 osteguna

- Zumarteko ikasleak, Berako Kultur Etxean, Nafarroan. 18:30ean.

Apirilak 25 ostirala

- Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Udarregi ikastolan eta Oiardon, 15:00etatik aurrera.

- Amnistiaren aldeko mugimenduak deituta, 20:00etan manifestazioa, frontoi atzetik abiatuta.

Apirilak 28 astelehena

- Santixabeletako Jai Batzordearen bilera. 19:00etan Sutegin.

Apirilak 29 asteartea

- Lurraren prestaketa, ongarriketa eta konpostaketari buruzko hitzaldia. 19:00etan Sutegin.

Maiatzak 3 larunbata

- 19:30ean "Voces del desierto" dokumentala Sutegin. Ondoren, hitzaldia euskaraz. Sarrera doan. Jexux Artze Kultur Elkartearen lehen ekitaldia.

Maiatzak 4 igandea

- Egun osoz Andatza mendian erromeria.

KzGuneko ikastaroak

Apirilak 28 astelehena

- "Postal bat bidali". 12:00-13:00.
- "Justizia ezagutu ezazu" ikastaroa. 11:00etatik 12:00etara.

Apirilak 30 asteazkena

- "Foroak", 11:00etatik 12:00etara.
- "Itzultzaileak", 12:00- 13:00.

IT Txartela

Apirilak 29 asteartea, 11:00-13:00.
KzGunea, apirilean: 9:00-13:00.
Maiatzean, 16:00-20:00.
Tf: 943 36 14 12.

Euskara ikasten dauden ikasleak familia euskaldunen premian dira

HABEK martxan jarri duen programa honen bidez, euskara ikasten dagoen ikasleari familia euskaldun batean hilabete bat edo bi pasatzeko aukera eman nahi zaio. Herri euskaldunen bizimodua eta ohiturak ezagutzeko parada ere, bide batez.

Familiak bete beharreko baldintzak hauek dira:

-Egonaldiak hilabetekoak izango dira gutxienez, eta hilabete bakoitzean lagun bakarra hartu ahal izango da.

-Ikasleak 18 urtetik gorakoak izango dira.

-Egonaldia eskaintzen den hilabetean etxean, gutxienez, hiru lagunek bizi beharko dute.

-Ikaslearentzako logela bat libre izan



WWW.EGONALDIK.NET
WEB ORRIALDEAREN ATARIA.

beharko du.

-Familiak, horren truke, 650 euro jasoko du hilabete bakoitzeko.

Gogoan izan ostiral honetan amaituko dela izena emateko epea. Informazio gehiago udal euskara batzordean, 943 37 19 99, edota webgune honetan: www.egonaldiak.net

Autoestima tailerra osatzeko deialdia

Eiñean Guraso Eskolak, udalaren laguntzaz, autoestima tailer bat jartzeko asmoa du. Baina izena ematen duen jende kopuruaren arabera erabakiko da aurrera edo atzera egitea.

Maiatzean egingo litzateke tailerra, hiru astez, eta astean bi eguntan, goizez edo eguerdiz.

Interesatuak zaudetenok jarri Eiñean Guraso Eskolarekin harremanetan: 615 006 535.

Zubietako Eskola Txikian, hitzaldia gurasoentzat

Ostegun honetan, hilak 24, Zubietako Eskola Txikiko gurasoek hitzaldi interesgarri batean parte hartzeko aukera ederra dute. Dentista batek umeen ahoko higienari buruzko hitzaldia eskainiko du. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da hitzaldia.

Aurrerago, maiatzaren bukaran, Kultur Astea antolatuko dute gurasoek eta herriko hainbat elkartek.

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

MIKEL IZAGIRRE

ELEKTRIZITATEA

943 365 095
609 068 111

GOIZ ARGI ETXEA, 37. KALEZAR

JUANTXO

BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

Otar-Goxo

Elikagaiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

ETXEBIZITZA

- Kaskoan pisu bat alokatzen dugu, garajea dauka. Abala eskatzen da. Deitu 19:00tatik 21:00ra 607582968 telefonora.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukaldere, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilagunentzako aparkalekua dauka. 210.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke. Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaskoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berritua eta amueblatua. 49.800.000 pta. Tf: 657 71 13 35.
- Terrenoa duen borda bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 664774024.
- Terrenoa daukan baserri bat erosiko nuke. 664774024.
- 75.000 metro karratuko terrenoa daukan baserri bat daukat salgai. Argi indarra, telefonoa eta ura ditu. Agroturismo bat jartzeko oso egokia. 664774024.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldere, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaskoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Pisu salgai Atxegalden. 4 logela, bi komun, sukaldere, egongela eta trasteroa. Berritua. 53.000.000 pezeta. 696 693 710.
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 245.000 euro. 678084020.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisu salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 30 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.

- Pisu alokatuko nuke Usurbilen. 661 702 708.
- Etxe berria salgai kaskoan. 3 logela, bainua, komuna, sukaldere, egongela eta trasteroekin. 685731792.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen dugu. Kotxeak sartzeko egokia, lokal moduan ez dugu alokatzen. 85 euro hilabetean. 943361235.
- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajeen egondakoa. 620625823.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Orduetegiaren flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrik emateko prest egongo al zinateke? Udarregi ikastolan, lan hori beteko luketen pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.

Lan-eskaerak

- DBHko klase eta batez ere matematikako klase partikularrik emateko pertsona euskaldun baten bila nabil. 670573438.
- Sukaldaria naiz, goizez egongo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibiltatea. 679742413.

- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620 646 769.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Usurbilen edo inguruan belardiak behar dira belarra ontzeko. Tf: 607 45 70 04. 943 36 60 40. Dani.
- Sukalderako zein egongelarako sei lagunentzako mahaia eta aukilak oparitzen ditut (mahaia, lau eserleku bizkarraldeekin eta bi banketa), sukaldere berritu dudalako. Zilar kromatuzko egitura eta eserlekuak urdinak. Mahaiaren gainaldea kristalezkoa da. Ia berriak. Tel. 629 48 24 74.
- Musika ekipo bat salgai: mahaia, etapak, ahots efektuak... egokia talde baten lokalean jartzeko. Larra DJ 615713204.
- Euskal arrazako bi pottoka salgai: kalifikatuak eta udaberriaren umea egingo dutenak. 653719176.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Martxoaren 15ean zilar kolorezko eskumuturrekoa brazalet itxurakoa galdu nuen. Barrukaldean "uno d 50" jartzen du. 943 36 52 61
- Martxoaren 9an Usurbilgo frontoian xira txuri-gorri bat galdu dut. Aurkitu baduzu: 943130036.
- Otsailaren 24an Igeldo inguruan Pastor Aleman eme gazte bat galdu dugu. Bikote batek hartu zuela uste dugu. Txipa eta identifikazio plaka ere badauzka. 943210330.
- Naranja eta gorri koloreko bi raketa galdu ditugu; bat handia, bestea txikia. 692 837 951.
- Abenduaren 4an giltzak galdu nituen giltzatak beltz batekin. Aurkitu badituzu: 685 72 56 81.
- Usurbilgo gazte kuadrila bat gara eta lokal bat alokatu nahi genuke herrian. 943360744.
- Kotxeko aukilak salgai. Maxi Cosi Priori XP. 80 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aukilak salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak Maddi!
Apirilaren 25an egingo ditu gure etxeko printzesak 5 urte. Zorionak eta txokolatezko muxu handi bat etxeko guztien partez!



Zorionak, Malen!
Apirilaren 27an 8 urte beteko dituzu. Jon Mikel, Nahia eta etxeko guztien partetik muxu potolo bat gure dantzari politarentzat!

Oharra: *Jaiotzak*, Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotako datuak. Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, deitu bulego orduetan, telefono zenbakira: 943 360 321. e-posta: erredakzioa@noaua.com



Eskerrik asko amona Ana!
Horrenbeste laguntzeagatik. Patxo potolo bat gure partez!



HILDAKOAK

Gregorio Recio Rodriguez
Apirilaren 17an hil zen 57 urterekin, Erreka-Txiki, Usurbil




HILDAKOAK

Angela Aranguren Pagola
Apirilaren 17an hil zen 82 urterekin, Aginaga, Usurbil



Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta
eta Usurbilgo Udalak. Euskarako Batzordeak.

EGIZU EUSKARAZ ERRENTA AITORPENA



zirmingarra



Kultur Ekitaldiak

apirilean

film laburren proiektzioa eta Katamalo ikusi ditugu.

eta maiatzean

PLIS, PLAS, TXALO TA JOLAS

Maiatzaren 24tik ekainaren 19ra • Usurbilgo auzo eta herrietan

ORNITORRINKUS

Maiatzak 31 larunbata
Usurbilgo dema plazan

NOAUA!

Kultur elkartearen eskutik

